



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 13a

4 ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

— Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

— Beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak) egiteko liberatuen kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

— Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeko proiektuaren administrazio-egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

D Saila:
HITZARMENAK

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 2an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1982ko abuztuaren 10eko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45.4 artikulua ezarritakoarekin bat, Foru Diputazioak, 1997ko azarroaren 17an hartutako Erabakiaren bidez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Parlamentura bidali du.

Hori dela-eta, Biltzarreko Erregelamenduko 161. artikulua eta horrekin loturikoak ezarritakoaren arabera, Bozeramaileen Batzarrak entzun ondoren, ERABAKITZEN DA:

1.- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren eztabaida eta bozketa Biltzarreko Erregelamenduko 162. artikulua ezarritakoaren arabera burutu dadin xedatzea.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren erreformaren onspena. Bertan erabaki da 3, 5, 7, 8, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 16, 17, 19, 25, 26, 28, 29, 30, 31, 32, 34, 35, 37, 38, 45, 50, 59, 60 eta 61. artikuluen eta laugarren xedapen gehigarriaren idazketa berria egitea eta, beste aldetik, Hitzarmenari gehitzea seigarren, zazpigarren, zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren xedapen iragankorrak.

Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondorioz eransten diren aldaketek indarra hartuko dute 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera, salbu 17.3.c), 31 eta 32. artikuluetan ezarritakoak, horiek 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoak baitira.

“3. artikulua. Estatuaren eskumen eskusiboa-
ak.

1. Estatuaren esku geldituko dira, edozein kasutan, honako hauek:

a) Monopolio fiskalen bidez ordainarazten diren zergen arauketa, kudeaketa, likidazioa, dirubilketa, ikuskapena eta berrikuspena, inportazio-
eskubideak eta inportazioaren gaineko kargak Zerga Berezietan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan.

b) Zerga guztien arauketa, noiz eta sujetu pasiboa, zergapeko edo ordezkoko gisa, nortasun juridikodun nahiz gabeko entitate edo pertsona fisikoa izanik, Estatuko zerga-ordenamenduaren arabera, Espainia barreneko lurraldeko egoiliarra ez den.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren zergen arauketa, kudeaketa, likidazioa, dirubilketa, ikuskapena eta berrikuspena Nafarroako Foru Komunitatearen esku geldituko dira, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoaren arabera.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren eginkizunetan ari denean, Foru Komunitatea lotu beharko zaio ezarpen bikoitza saihesteko xedearekin Espainiak sinaturiko Nazioarteko Hitzarmenetan xedatutakoari, bai eta Europako Batasunaren zerga-armonizazioari buruzko arauetan ezarritakoari ere, eta bere gain hartu beharko du hitzarmen eta arau horien aplikaziotik etor daitekeen dirua itzultzeko beharkizuna.

2. Ez da deusetan galaraziko Estatuaren goi-
ikuskapena, Hitzarmen Ekonomiko honetan uzten zaizkion ahalmenen berme gisa.

5. artikulua. Koordinazioa.

1. Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak elkarrekin jardungo dute beren zerga-araubideak aplikatzeko zereginean eta, horretarako, elkarri emanen dizkiote behar diren argibideak eta laguntzak.

2. Estatuak behar diren baliabideak zehaztuko ditu gauzatu ahal izateko Nafarroako Foru Komunitatearen lankidetzaz Nazioarteko Hitzarmenetan, Hitzarmen Ekonomiko honen aplikazioan eragina duten haietan.

7. artikulua. Armonizazio-irizpide orokorrak.

1. Zergen gaineko arautegia prestatzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Tributuen gaineko Lege Orokorrari egokitu-ko zaio terminologiaren nahiz kontzeptuen aldetik, deusetan ukatu gabe Hitzarmen honetan ezarritako berezitasunak.

b) Estatuak gainerakoetan dagoenaren pareko benetako zerga-presio orokorra ezarri eta mantenduko du.

c) Errespetatu eta bermatuko du pertsonen zirkulatzeko eta egoitza finkatzeko askatasuna, bai eta ondasun, kapital eta zerbitzuak libreki zirkulatzeko ere, Espainiako lurralde osoan, inolako bereizkeriarik eragin gabe.

d) Lurralde komunean erabiltzen den sailkapen bera erabiliko du industria-, merkataritza-, zerbitzu-, lanbide-, nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-jardueretarako, deusetan ukatu gabe Foru Komunitatean haiei buruz egin daitekeen sailkatze xeheagoa.

2. Hitzarmen honen ondorioetarako, egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoek ohizko egoitza Nafarroan dutela erabakitzeak, honako arau hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

1go. Nafarroan egiten badituzte beste lurraldeetan baino egun gehiago:

a) Zergaldian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez.

b) Urte bakoitzean, Ondorengotza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokionez.

c) Sortzapenaren egunaren aurreko urtean, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokionez.

Denbora hori zenbatekoa den zehazteko, kontuan hartuko dira bertatik alde eginda tarteka emandako egunak.

Kontrako frogarik ez dagoen bitartean, pertsona fisiko bat Nafarroan dagoela kontsideratuko da baldin eta haren ohizko etxebizitza bertan kokatua badago.

2gn. Baldin eta lurralde honetan badute beren interesgune nagusia, halakotzat hartuko delarik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarria, alde batera utzirik, ondorio hauetarako, kapital higigarritik datozen ondare-etekinak eta ondare-gehikuntzak, bai eta zerga-gardentasuneko erregimenean egotzitako oinarriak ere, salbu lanbide-jarduerak aurrera eramaten dituzten sozietateen kasuan.

3gn. Baldin eta lurralde honetan badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako deklaraturako azken egoitza.

3. Horietaz gain, beren egoitza Nafarroan dutela ulertuko da honako kasu hauetan:

a) Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoak, urte naturaleko 183 egunetik goiti bertan ematen ez dutenak, baldin eta Nafarroan kokatua badago beren enpresa- edo lanbide-jardueren edo beren interes ekonomikoen gune nagusia.

b) Uste denean pertsona fisiko bat Espainiako lurraldean bizi dela, bere ezkontide legez ezberetziak eta haren zaintzapeko adin txikiko seme-alabek ohizko egoitza Nafarroan dutelako.

4. Hitzarmen honen ondorioetarako, ulertuko da zerga aldetik helbidea Nafarroan dutela honako hauek:

a) Ohizko egoitza Nafarroan duten pertsona fisikoek.

b) Sozietatearen egoitza Nafarroan duten pertsona juridikoek, baldin eta bertan badaude benetan zentralizatuak bere kudeaketa administratiboa eta bere jardueren zuzendaritza. Bestela, aipatu kudeaketa eta zuzendaritza horiek Nafarroan gauzatzen badira.

c) Nortasun juridikorik gabeko enteek, beren kudeaketa eta zuzendaritza Nafarroan gauzatzen direnean. Baldin eta irizpide horretaz baliatuz ezinezkoa bada zehaztea beren helbide fiskala, hartuko da beren ibilgetuaren balio handiena kokatzen den lurraldea.

d) Establezimendu iraunkorrek, beren kudeaketa administratiboa eta beren jardueren zuzendaritza Nafarroan gauzatzen direnean. Baldin eta irizpide horretaz baliatuz ezinezkoa bada zehaztea egoitzaren kokagunea, hartuko da beren ibilgetuaren balio handiena kokatzen den lurraldea.

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen esku dagoen ordainarazpena.

1. Foru Komunitatearen esku dago ohizko egoitza Nafarroan duten sujetu pasiboen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainarazpena.

Horretaz gain, Hitzarmen honetako 3. artikuluko 1. zenbakiko b) letran xedatutakoaren arabera, atzerrian bizi diren sujetu pasiboen Zergaren ordainarazpena ere Foru Komunitatearen esku dago, zerga ordainarazi beharko baitzaie Nafarroako lurraldean eskuratutako errentek eragindako benetako obligazioagatik.

2. Famili unitate batean sartutako sujetu pasibo guztiek ohizko egoitza Nafarroako lurraldean ez izanagatik, erabakitzen badute baterako zerga-ordainketa egitea, Foru Komunitatearen esku geldituko da ordainarazpena, baldin eta bertako lurraldean bizi bada aipatu unitate horretan likidazio-oinarri handiena duen kidea, beti ere zerga indibidualizatzeke arauekin bat.

9. artikulua. Lan-etekinengatik atxikipen eta konturako dirusarrerak.

1. Foru Komunitateak exijituko ditu sorlekuko atxikipenak, lan pertsonalaren etekinen gainean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan, baldin eta etekin horiek Nafarroan zerbitzu ematen edo lanean ari diren langile eta enplegatuei badagozkie eta, horiekin batera,

a) Aurreko lerroaldean aipatutako langile eta enplegatuei, gora-beheraren bat dela medio Nafarroatik kanpo egin behar izan diren lanengatik, dagozkien etekinenak.

b) Foru Komunitateko eta Nafarroako toki entitateetako eta haien erakunde autonomoetako funtzionario eta enplegatuei, lan-kontratudunak nahiz kontratatu administratiboak izan, dagozkien ordainsarienak.

c) Lana errepidean egiten duten garraio-enpresetako langileen etekinenak, baldin eta ordaintzen dien enpresak helbide fiskala Nafarroan badu.

d) Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateek ordaintzen dituzten pentsioenak, barne harturik haiek jasotzeko eskubidea jasotzailea ez den beste pertsona batek eragindakoak, eta hartzeko pasiboenak, bai eta Gizarte Segurantzak, monte-pioek, mutualitateek, enpresek, pentsio-planek eta gainerako entitateek bere lurraldean ordaintzen dituztenak ere.

Nafarroan ordaindutakotzat hartuko dira bere lurraldean eskudirutan edo bertan irekitako kon-tuetan abonatutako dirukopuruak.

e) Edozein motatako enpresetako administra-zio-kontseilu eta batzordeetan lehendakari eta kide gisa jarduteagatik jasotako ordainsarienak, baldin eta ordaintzen dien entitateak Foru Komunitateari zerga ordaintzen badio soil-soilik Sozietateen gainekoagatik.

Entitate ordaintzailea baldin bada Estatuak eta Foru Komunitateak exiji dezaketen Sozietateen gaineko Zergaren sujetu pasiboa, bi Administra-zioek eginen dute atxikipena, lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, Hitzarmen honetako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Estatuko Administrazioaren esku geldituko dira atxikipen hauek:

a) Ordainsariei dagozkienak, aktiboak nahiz pasiboak izan, barne harturik jasotzailea ez den beste pertsona batek eragindakoak, hark ordainduak Estatuko funtzionario eta enplegatuei, lan-kontratudunei nahiz kontratatu administratiboiei.

Aurreko lerroaldean xedatutakotik kanpo uzten dira erakunde autonomoetako eta enpresa-entitate publikoetako funtzionario eta enpleguatuak.

b) Lurralde komunean zerbitzu ematen edo lanean ari diren langile edo enplegatuek, gora-behera bereziren bat dela eta, Nafarroan egindako lanei dagozkien etekinenak.

3. Artikulu honetako 1. zenbakiko b) letran eta 2. zenbakiko a) letran xedatutakoaren ondorioz Administrazio bati edo besteari dagozkion atxikipenen zenbatekoa kontuan hartuko da ekarpen ekonomikoaren ondorioetarako.

4. Lan-etekinengatik konturako dirusarrerak Administrazio batek edo besteak exijituko ditu, artikulu honetan aipatzen diren arauen arabera.

10. artikulua. Lanbide-, arte- eta enpresa-jarduera eta sariengatik atxikipen eta konturako dirusarrerak.

Foru Komunitatearen esku geldituko dira lanbide-, arte-, enpresa-, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera eta sariengatik atxikipenak, baldin eta atxikipena edo konturako dirusarrera egin behar duen pertsona edo entitateak helbide fiskala Nafarroan badu.

Nolanahi dela ere, atxikipen eta konturako dirusarrera hauek Estatuko Administrazioak edo Foru Komunitatekoak exijituko ditu baldin eta haiek ordaindutako etekinei badagozkie.

11. artikulua. Kapital higigarriaren etekinengatiko atxikipen eta konturako dirusarrerak.

1. Kapital higigarriaren etekinei dagozkien atxikipen eta konturako dirusarrerak, artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren kasuetan izan ezik, Foru Komunitateak exijituko ditu, baldin eta ordaindu badituzte zerga Nafarroan ordaintzen duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren sujetu pasiboek edo zerga Nafarroan bakar-bakarrik Sozietateen gaineko Zergagatik ordaintzen duten entitateek.

Estatuak eta Foru Komunitateak exiji dezaketen Sozietatearen gaineko Zergaren sujetu pasiboak direnean, bi Administrazioek eginen dute atxikipena, lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, Hitzarmen honetako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Horretaz gain, Foru Komunitatearen esku geldituko dira honako etekin hauen atxikipen eta konturako dirusarrerak:

a) Foru Komunitateak, toki entitateek eta Nafarroako lurralde- eta instituzio-administrazioako gainerako enteek ordaindutakoak.

b) Korrituei eta edozein eratako kontraprestazioei, diru edo gauza bidezkoak, dagozkienak, noiz eta banketxeek, aurrezki kutxek, kreditu-kooperatibek eta gainerako finantza-entitate edo instituzioek, haien egoitza edozein delarik ere, Nafarroan irekitako establezimenduetako kontuen titulartasuna eduki edo kapitalak sartzearen ondoriozkoak diren.

c) Finantza-aktiboaren etekin implizituei dagozkienak, baldin eta aurreko letran aipatu entitateek esku hartzen badute haien eskualdaketa edo amortizazioan, eta, beti ere, eragiketa horiek egiten badira Nafarroan kokatutako establezimendu bitartez.

d) Aurreko c) letran seinalatutako etekinei dagozkienak, atxikipena egiten duen fede-emaile publikoak Nafarroan jarduten badu.

3. Estatuko Administrazioaren esku geldituko dira, edozein kasutan, hark ordaindutako etekinei dagozkien atxikipen eta konturako dirusarrerak, bai eta komunitate autonomoek, lurralde komuneko korporazioek eta haien lurralde- eta instituzio-administrazioetako gainerako enteek ordaindutakoak ere, nahiz eta Nafarroan ordaindu edo etekinen jasotzaileek beren helbide fiskala Nafarroan izan.

4. Kapital higigarriaren etekinengatiko konturako dirusarrerak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik konturako ordainketaren kon-

zeptuan, Foru Komunitateak edo Estatuko Administrazioak exijituko dituzte, aurreko zenbakietan ezarritako arauen arabera.

13. artikulua. Atxikipenen eta konturako dirusarreraren eraginkortasuna. Bi Administrazioei dagozkien atxikipenak.

1. Jasotzailearen Errentaren gaineko Zergaren likidaziorako, hari dagokionez, balio osoa izanen dute lurralde batean zein bestean egindako konturako atxikipen eta dirusarrerak, deusetan ukatu gabe, baldin eta horiek ordaindu bazaizkio eskuduna ez den Administrazioari, besteak uko egin behar izatea eskubidez dagozion kopurua jasotze-ari, erreklamazio bidez eskatzen ahalko baitio bidegabeki sarrera jaso duen Administrazioari.

2. Baldin eta, Hitzarmen honetako 9., 11. eta 14. artikuluetan ezarritakoaren arabera, atxikipenak bi Administrazioei badagozkie eragiketen bolumenaren arabera, kontuan hartuko dira lurralde bakoitzean aurreko ekitaldian egindako eragiketak, eta ez da bidezkoa izan azken erregularizaziorik egitea.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gora-behera, jardueraren lehenbiziko ekitaldian, bi Administrazioen artean bidezkoa den banaketa, hala behar denean, lurralde bakoitzean egin gogo diren eragiketen arabera eginen da, deusetan galarazi gabe dagozion azken erregularizazioa.

Bigarren Sekzioa **Egoiliar ez direnek Nafarroako lurraldean** **lortutako errentak**

14. artikulua. Atzerrian egoiliar direnek Nafarroako lurraldean lortutako errentak. Konturako ordainketak eta atxikipenak.

1. Hitzarmen Ekonomiko honetako 3. artikuluan 1. zenbakiko b) letran ezarritakoaren ondorioetarako, atzerrian egoiliar direnek Nafarroako lurraldean lortutako errentatzat hartuko dira honako hauek:

a) Establezimendu iraunkorren bidez lortzen diren mota guztietako etekinak, Hitzarmen Ekonomiko honetako 17. artikuluan aipatzen diren arauen arabera.

Pertsona fisiko edo entitate bat establezimendu iraunkorren bidez diharduela ulertuko da, baldin eta, edozein titulu dela medio, edozein motatako instalazio edo lantokirik badu, ohizkotasunez edo etenik gabeko aldi batez, bertan bere jarduera osorik edo neurri batean gauzatzen delarik, edo, bestela, bertan bere ordeztaritzen delarik agente bat, baimena duena kontratuak egiteko, sujetu pasibo ez-egoiliarren izenean eta kontu-

ra, eta baimen edo ahal horiek ohizkotasunez erabiltzen dituenak.

Establezimendu iraunkortzat hartuko dira bereziki zuzendaritza-egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, tailerrak, biltegiak, dendak edo bestelako establezimenduak, meategiak, petrolio edo gas putzuak, harrobiak, nekazaritza-, oihan- edo abeltzaintza-ustiategiak, edo natur-ondasunak bilatzeko edo ateratzeko gainerako edozein leku, eta eraikuntzako, instalatzeko edo muntatzeko lanak, hamabi hilabetetik goitiko iraupena dutenak.

b) Establezimendu iraunkorrik izan gabe ateratzen diren ustiategi ekonomikoetako etekinak, jarduerak Nafarroan egiten direnean. Nolanahi dela ere, ez dira Nafarroan atera edo sortutako etekintzat hartuko inportazioko makineria edo instalazioak Nafarroan instalatu edo muntatzea, baldin eta instalatze edo muntatze hori aipatu makineria edo instalazioak saldu dituenak berak egin badu eta horren balioaren zenbatekoa ez bada inportazioko elementuak eskuratzeko prezioaren 100eko 20tik goitikoa.

c) Zerbitzu emaketik datozen etekinak, hala nola azterlanak edo proiektuak egitetik, laguntza teknikoa eman edo kudeaketan laguntzetik, bai eta, halaber, lanbide-zerbitzuetatik datozenak ere, prestazioa Nafarroan egiten bada edo lurralde honetan erabiltzen bada. Ulertuko da Nafarroan erabili direla, lurralde honetan egindako enpresa- edo lanbide-jardueren zerbitzuan gauzatzen diren prestazioak edo bertan kokatutako ondasunei dagozkienak.

Zerbitzua erabili den lekua hartuko da kontuan, leku hori eta zerbitzua egin denekoa desberdinak direnean.

d) Menpeko lanaren etekinak, lana Nafarroan egiten denean.

e) Artista edo kirolariek Nafarroan egindako saioetatik zuzenean edo zeharka datozen etekinak, edo saio horiekin zerikusia duen bestelako edozein jardueretatik datozenak, artista edo kirolaria ez den beste pertsona edo entitateren bati egozten bazaizkio ere.

f) Nafarroako entitate publikoen fondo propioetako partaidetzatik datozen dibidendu eta bestelako etekinak, bai eta entitate pribatuen fondo propioetako partaidetzatik datozenak ere, artikuluko honetako 3. zenbakian ezarritakoaren arabera.

g) Kapital higigarriaren korritu, kanon eta bestelako etekinak, baldin eta ordaindu badituzte pertsona fisikoek edo entitate publiko nafarrek, edo entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek, artikuluko honetako 3. zenbakian ezarritakoa-

ren arabera, beti ere saritzen badituzte Nafarroako lurraldean erabilitako kapital-prestazioak.

Gainerako kasuetan, kontuan hartuko da saritzen den prestazioaren kapitala erabili den lekua.

h) Nafarroako lurraldean kokatutako ondasun higiezinetatik, zuzenean edo zeharka, datozen etekinak, edo haiei dagozkien eskubideetatik datozenak.

i) Pertsona edo entitate publiko nafarrek jaulkitako baloreetatik datozen ondare-gehikuntzak, bai eta, halaber, entitate pribatuek jaulkitakoetatik datozenak ere, artikuluko honetako 3. zenbakian ezarritakoaren arabera.

j) Nafarroako lurraldean kokatutako ondasun higiezinetatik datozen ondare-gehikuntzak edo lurralde horretan bete edo erabili beharko lirakekeen eskubideetatik datozenak. Letra honen barrenean sartzen dira, bereziki, honako hauek:

Lehenbizi. Entitate batean (berdin egoiliarra edo ez-egoiliarra izan) edukitako eskubide edo partaidetzetatik datozen ondare-gehikuntzak, baldin eta entitate horren aktiboa nagusiki Nafarroako lurraldean kokatutako ondasun higiezinak eratzten badute.

Bigarren. Entitate batean (berdin egoiliarra edo ez-egoiliarra izan) edukitako eskubide edo partaidetzak eskualdatzetik datozen ondare-gehikuntzak, haren titularrari Nafarroako lurraldean kokatutako ondasun higiezinak erabiltzeko eskubidea ematen diotenak.

k) Nafarroako lurraldean kokatutako bestelako ondasun higigarrietatik datozen ondare-gehikuntzak, edo aipatu lurraldean bete behar diren edo erabiltzen diren eskubideetatik datozenak.

2. Aurreko zenbakian aipatu irizpideei segituz, ulertzen bada errenta bat bi lurraldeetan batera lortu dela, Nafarroako Foru Komunitateari ordaindu beharko zaio zerga baldin eta ordaintzailearen helbide fiskala, pertsona fisikoa denean, Nafarroan badago; pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, artikuluko honetako 3. zenbakian xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Aurreko 1. zenbakiko f), g) eta i) letrek aipatzen dituzten kasuetan, bai eta 2. zenbakian ezarritako kasuan ere, entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutako errentak Nafarroan lortu edo sortuak direla ulertuko da honako neurri honetan:

a) Sozietateen gaineko Zergagatik Nafarroari bakarrik ordaintzen dioten entitate edo establezimendu iraunkorren kasuan, ordaintzen dituzten errenten guztirakoa.

b) Sozietateen gaineko Zergagatik bi Administrazioei batera ordaintzen dieten entitate edo establezimendu iraunkorren kasuan, errenten zati bat, Nafarroan egindako eragiketen bolumenaren araber ordaintzea dagokiena.

Dena dela, letra honek aipatzen dituen kasuetan etekin guztiak ordainarazteko eskuduna, ez-egoiliararen ordezkari gisa likidazioa aurkezten duten pertsona, entitate edo establezimendu iraunkorrek beren ohizko egoitza non duten, lurralde hartako Administrazioa izanen da, deuse-tan galarazi gabe beste Administrazioari egin beharreko bidezko konpentsazioa, azken horren lurraldean egindako eragiketen bolumenari dagokion zatiagatik.

Era berean, ez-egoiliarrei egin behar zaizkien itzulketak, ez-egoiliararen ordezkari gisa likidazioa aurkezten duten pertsona, entitate edo establezimendu iraunkorrek beren ohizko egoitza edo helbide fiskala non duten, lurralde hartako Administrazioaren kargura geldituko dira, deuse-tan galarazi gabe beste Administrazioari egin beharreko bidezko konpentsazioa, azken horren lurraldean entitate ordaintzaileak egindako eragiketen bolumenari dagokion zatiagatik.

4. Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona edo entitateek jasotako etekinen gaineko konturako ordainketak eta atxikipenak, etekinak non lortu direla uste den, hango Administrazioari exijituko ditu, artikulua honetako aurreko zenbakietan xedatutakoaren arabera.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gora-behera, 3. zenbakian aipatzen diren kasuetan, Nafarroako Foru Komunitatearen esku gelditzen da konturako ordainketa eta atxikipen guztiak egitea, baldin eta errenta ordaintzen duen entitate edo establezimenduak Nafarroari bakarrik ordaintzen badio zerga, Sozietateen gaineko Zergaren kontzeptuagatik, eta, bestela, eragiketen bolumenari dagokion proportzioa, baldin eta bi Administrazioei batera ordaintzen badie.

Hirugarren Sekzioa Ondarearen gaineko zerga

15. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen esku dagoen ordainarazpena.

1. Foru Komunitatearen esku geldituko da Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zergaren ordainarazpena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainarazpenerako eskuduna den kasu beretan, kontuan hartu gabe ondasunak kokatzen diren edo eskubideak erabil daitezkeen lekua.

2. Zerga ordaintzeko benetako obligazioagati-ko sujetu pasiboak direnean, Foru Komunitatearen esku geldituko da Zergaren ordainarazpena, baldin eta ondasun eta eskubide guztiak Nafarroako lurraldean badaude kokaturik. Ondorio hauetarako, ulertuko da Nafarroako lurraldean daudela kokaturik lurralde horretan berean kokaturik dauden edo bertan erabiltzen ahal diren edo bete behar diren ondasun eta eskubideak.

Laugarren Sekzioa Sozietateen gaineko zerga

16. artikulua. Aplikatu beharreko arautegia.

1. Zerga soil-soilik Nafarroako Foru Komunitateari ordaintzen dioten entitateek, hurrengo artikuluan aipatzen diren irizpideen arabera, Nafarroako foru arautegia aplikatu beharko dute.

2. Zerga bi Administrazioei batera ordaintzen dieten entitateek beren helbide fiskalari dagokion Administrazioaren arautegia aplikatuko dute. Dena dela, helbide fiskala Nafarroan izanik, arautegi komuneko lurraldean beren eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago egiten dituzten entitateek, hurrengo 17., 18. eta 19. artikuluetan ezartzen diren harreman-puntuaren arabera, Estatuaren arautegiaren menpe geldituko dira.

3. Atzerrian egoiliar izanik helbidea Nafarroako lurraldean duten entitateen establezimendu iraunkorren zatia, aurreko zenbakietan aipatzen diren arauak aplikatuko zaizkie.

17. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen esku gelditzen da Sozietateen gaineko Zerga ordainaraztea honako sujetu pasibo hauei:

a) Helbide fiskala Nafarroan izan eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena guztira bostehun milioi pezeta baino handiagoa ez dutenak.

b) Bakar-bakarrik Nafarroako lurraldean jardun eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena guztira bostehun milioi pezetatik goitikoa dutenak, edozein tokitan dutelarik ere beren helbide fiskala.

2. Bi lurraldeetan jardun eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena guztira bostehun milioi pezetatik goitikoa duten sujetu pasiboek, zerga bi Administrazioei batera ordainduko diete, edozein tokitan dutelarik ere beren helbide fiskala. Ekitaldian zehar lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren arabera ordainduko dute zerga, bolumen hori zehaztuko baita hurrengo 18. eta 19. artikuluetan ezartzen diren harreman-puntuak kontuan hartuz.

3. Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen kasuan, Sozietateen gaineko Zergaren ordainarazpena arau hauei lotuko zaie:

a) Establezimendu iraunkorraren bitartekotasunik gabe lortutako errentak kargatzen direnean, Zergaren ordainarazpena geldituko da errenta horiek lortu bide diren lurraldeko Administrazioaren esku, Hitzarmen Ekonomiko honetako 14. artikulua arabera.

b) Establezimendu iraunkorraren bitartez lortutako errentak kargatzen direnean, Zergaren ordainarazpena Administrazio baten edo bestearen esku geldituko da, edo bien esku batera, Zergaren armonizazioari buruz aurreko zenbakietan aipatzen diren arauen arabera.

c) Entitate ez-egoiliarren Ondasun Higiezinaren gaineko Karga Bereziaren ordainarazpena Estatu-ko Administrazioaren esku edo Foru Komunitatekoaren esku geldituko da, karga jasotzen duen ondasun higiezina lurralde komunean edo Nafarroan kokatzen den.

4. Aurreko 1 eta 2. zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera hasten den kasuetan, bostehun milioi pezetako zenbatekoa kontatzeko, hasierako ekitaldian egindako eragiketen bolumenari begiratuko zaio.

Aipatu ekitaldia urtebetetik beheitikoa bada, aurreko zenbatekoa kontatzeko, egindako eragiketarik urtebetera zabalduko dira.

Aurreko lerroaldeak aipatzen dituen eragiketen bolumena eta egin diren lekua ezagutu arte, halakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, sujetu pasiboak, jarduera hasten den ekitaldian zehar egin gogo dituen eragiketen arabera, uste dituen haiek.

5. Eragiketen bolumentzat hartuko da kontraprestazioen zenbateko guztirakoa, horri kenduta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun erreargua, halakorik bada, sujetu pasiboak lortzen duena bere jardueran egindako zerbitzu-prestazioen eta ondasun-entregaren bitartez.

19. artikulua. Eragiketarik egiteko lekua.

Nafarroan egindakotzat hartuko dira honako eragiketarik hauek:

A) Ondasun-entregak.

1go. Ondasun higigarri korporalen entregak, entrega egiten duenak berak fabrikatu edo eraldatutako ondasunenak, alegia, fabrikatzeko edo eraldatzeko sujetu pasiboak dituen zentroak Nafarroako lurraldean daudenean.

Sujetu pasiboak fabrikazio edo eraldaketa zentroak Nafarroan eta lurralde komunean dituzenean, baldin eta entregatutako ondasunen fabrikazio edo eraldaketako azken urratsa Nafarroan gauzatzen bada.

2gn. Industri-elementuak Nafarroatik kanpo entregatu eta instalatzea denean, Nafarroan egindako eragiketarik direla ulertuko da, baldin eta prestaketa eta fabrikazio lanak aipatu lurraldean egin badira eta instalazio edo muntaketaren kostua ez bada kontraprestazioaren guztirakoaren 100eko 15etik goitikoa.

Beste aldetik, ordea, ez dira Nafarroan egindakotzat hartuko industri-elementuak aipatu lurralde horretan entregatu eta instalatzea, baldin eta elementuak prestatu eta fabrikatzeko lanak lurralde komunean egiten badira eta instalazio edo muntaketaren kostua ez bada kontraprestazioaren guztirakoaren 100eko 15etik goitikoa.

3gn. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako entregak, baldin eta zentro sortzaileak Nafarroako lurraldean kokatuak badaude.

4gn. Ondasun higigarri korporalen gainerako entregak, baldin eta jasotzailearen eskura uzteko prozesua Nafarroako lurraldetik gauzatzen bada. Ondasunak garraiatu behar badira jasotzailearen eskura uzteko, bidaia edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, entregak han gauzatu direla ulertuko da.

5gn. Ondasun higiezinaren entregak, haien eskubide errealak barne, ondasunak Nafarroako lurraldean daudenean.

B) Zerbitzu-prestazioak.

1go. Zerbitzu-prestazioak Nafarroan egintzat hartuko dira, aipatu lurraldetik egiten badira.

2gn. Aurreko idazatian xedatutakoan ez dira sartzen ondasun higiezinekin zuzenean lotutako prestazioak, ondasun horiek Nafarroan kokatzen ez badira.

3gn. Horretaz gain, aurreko idazatietan xedatutakoan ez dira sartzen, ezta ere, aseguru eta kapitalizazio eragiketarik, zeinei dagokienez aplikatuko baitira Hitzarmen Ekonomiko honetako 31. artikuluan bildutako arauak.

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa gora-behera, Nafarroan egindakotzat hartuko dira ondotik zehazten diren eragiketarik, haiek egiten dituen sujetu pasiboak bere helbide fiskala Nafarroako lurraldean baldin badu.

1go. Nekazaritza-, oihanzaintza-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiategiek eta arrantzuntzietako

armadoreek egiten dituzten natur produktuen entregak, beti ere produktu horiek beren labore, ustiategi edo harrapaketatik datozenak eta eraldaketa prozesurik jasan ez dutenak direnean.

2gn. Garraio zerbitzuak, barne harturik aldaira, atoian eramate eta garabikoak.

3gn. Garraibideak errentan ematea.

D) Artikulu honetan ezarritako irizpideen araberako egindako eragiketak izanik, atzerrian egindakotzat hartzen badira, Administrazio bati edo besteari egotziko zaizkio, hala behar denean, gainerako eragiketentzat egiten den proportzio berean.

E) Aurreko artikuluan ezarritako eragiketak egiten ez dituzten entitateek Nafarroari ordainduko diote zerga, helbide fiskala Nafarroako lurraldean dutenean.

25. artikulua. Sozietateen elkarte, aldi baterako batasun eta taldeen zerga-erregimena.

1. Interes ekonomikoko elkarteen eta enpresen aldi baterako batasunen eta enpresa-bilkuren zerga-erregimena, horiek hartzen duten lurralde-eremuak gainditzen badu Nafarroako Foru Komunitatearena edo zerga-legeria desberdinen pean badaude, Estatuaren esku geldituko da, deusetan galarazi gabe enpresa-elkartze horien mozkinaren banaketa egin dadin Hitzarmen honetan Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako aipatzen diren irizpideen arabera.

2. Sozietate-taldeen zerga-ordainketa zehazteko honako arau hauek aplikatuko dira:

1go. Zerga-ordainketa sendotuaren erregimena Foru Komunitateari dagokiona izanen da, baldin eta sozietate nagusia eta menpeko guztiak foru arautegiari loturik badaude, bakarkako zerga-ordainketaren erregimenean. Ondorio hauetarako, sozietate nagusiak taldetik kentzen ahalko ditu arautegi komunari loturik dauden menpekoak, zeinek bakarka ordaindu beharko baitute zerga, ondorio guztietarako, aurreko artikuluetan aipatutakoaren arabera.

Nolanahi dela ere, sozietate-taldea, sozietate nagusia, menpeko sozietateak, menpekotasun maila eta taldearen barreneko eragiketak definitzeko, erabiliko da Estatuak une bakoitzean ezarritako arautegi bera.

2gn. Gainerakoetan, barne harturik aurreko arauak aipatzen dituen sozietate-taldeen arautegi komunari lotutako menpeko sozietateak baztertzen ez dituzteneko kasuak, zerga-ordainketa sendotuaren erregimena Estatu Administrazioari dagokiona izanen da.

3. Bi Administrazioei zerga ordaintzen dieten sozietate-taldeen zerga-ordainketa sendotuaren erregimena aplikatzeko honako arau hauei jarraituko zaie:

1go. Taldea osatzen duten sozietateek aurkeztuko dute, arau orokorrekin bat, zerga-ordainketa independentearen erregimenerako ezarritako aitorpena.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa galarazi gabe, sozietate nagusiak aurkeztuko dizkio Administrazioetako bakoitzari sozietate-taldeen kontabilitate-egoera sendotuko.

2gn. Talde sendotuak Administrazio bati nahiz besteari ordainduko dio zerga, lurralde batean eta bestean egindako eragiketen bolumenaren arabera.

Ondorio hauetarako, lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena izanen da taldeko kide diren sozietateetako bakoitzak taldean bertan egiten dituen eragiketen batuketa edo pilaketa, bidezko diren taldearteko bazterketak baino lehen.

Bosgarren Sekzioa

Ondorengotza eta dohaintzen gaineko zerga

26. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Nafarroako Foru Komunitatearen esku geldituko da ondorengotzak eta dohaintzak kargatzen dituen Zergaren ordainarazpena, honako kasu hauetan:

a) Ondasun eta eskubideak oinordetza, legatu edo ondorengotzako bestelako tituluren bat dela medio eskuratzean, kausatzaileak ohizko egoitza Nafarroan duenean edo, egoitza atzerrian izanik, politikoki nafarra izateari eusten badio, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5. artikulua arabera.

b) Ondasun higiezinak eta haien gaineko eskubideak dohaintza edo doako bestelako negozio juridikoren bitartez eta "inter vivos" eskuratzean, horiek Nafarroako lurraldean kokatuak badaude, eta gainerako ondasun eta eskubideak, dohaintza-egileak edo jasotzaileak ohizko egoitza aipatu lurraldean badute

Ondorio hauetarako, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira baloreen doako eskualdaketa, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan aipatzen direnak.

c) Aurreko letretan aipatzen ez diren kasuetan, eta 3. artikuluko 1. zenbakiko b) letrean xedatutakoaren arabera, zergapekoak ohizko egoitza atze-

rrian duenean eta eskuratutako ondasun eta eskubide guztiak Nafarroako lurraldean kokatuak egon edo erabiltzen ahal izan edo bete behar badira, bai eta, halaber, bizi-aseguruen kontratuetatik datozen kopuruak jasotzeagatik, kontratua Nafarroako lurraldean egin denean aseguru-entitate egoiliarrekin edo bertan diharduten atzerriko entitateekin.

28. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen esku gelditzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena honako sujetu pasiboek aplikatzeko:

a) Helbide fiskala Nafarroan izan eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena guztira bostehun milioi pezetatik goitikoak ez dutenak.

b) Bakar-bakarrik Nafarroako lurraldean jardun eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena guztira bostehun milioi pezetatik goitikoak dutenak, helbide fiskala nonahi dutelarik ere.

2. Bi lurraldeetan jardun eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena guztira bostehun milioi pezetatik goitikoak dutenak, helbide fiskala nonahi dutelarik ere, bi Administrazioei batera ordainduko diete zerga. Urte naturalean zehar lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren arabera ordainduko dute zerga, bolumen hori zehaztuko baita hurrengo zenbakietan ezarritzen diren harreman-puntuak kontuan hartuz.

3. Eragiketen bolumentzat hartuko da kontraprestazioen zenbateko guztirakoa, horri kenduta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekarua, halakorik bada, sujetu pasiboak lortzen duena bere enpresa- edo lanbide-jarduera guztietan egindako zerbitzu-prestazioen eta ondasun-entregaren bitartez.

4. Aurreko 1 eta 2. zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera hasten den kasuetan, bostehun milioi pezetako zenbatekoa kontatzeko, lehenbiziko urte naturalean egindako eragiketen bolumenari begiratuko zaio.

Jardueraren lehenbiziko urtea ez badator urte naturalarekin bat, aurreko zenbatekoa kontatzeko, egindako eragiketarako urtebetara zabalduko dira.

Aipatu urtean zehar zerga-ordainketa behin-behinekotasunez egiten da, hasierako urtean egitea aurrekisten den eragiketen bolumenaren arabera, deusetan ukatu gabe ondorengo erregularizazioa, bidezkoa denean.

5. Sujetu pasibo batek lurralde batean diharduela ulertuko da, baldin eta, arau hauetan ezarritzen diren harreman-puntuen arabera, bertan egi-

ten badira zerbitzu-prestazioak edo ondasun-entregak.

6. Nafarroan egindakotzat hartuko dira Zergari lotutako eragiketarako, honako arau hauen arabera:

A) Ondasun-entregak.

1go. Ondasun higigarri korporalen entregak, entrega egiten duenak berak fabrikatu edo eraldatutako ondasunenak, alegia, fabrikatzeko edo eraldatzeko sujetu pasiboak dituen zentroak Nafarroako lurraldean daudenean.

Sujetu pasiboak fabrikazio edo eraldaketa zentroak Nafarroan eta lurralde komunean dituenak, baldin eta entregatutako ondasunen fabrikazio edo eraldaketako azken urratsa Nafarroan gauzatu bada.

2gn. Industri-elementuak Nafarroatik kanpo entregatu eta instalatzea denean, Nafarroan egindako eragiketarako direla ulertuko da, baldin eta prestaketa eta fabrikazio lanak aipatu lurraldean egin badira eta instalazio edo muntaketaren kostua ez bada kontraprestazioaren guztirakoaren 100eko 15etik goitikoak.

Beste aldetik, ordea, ez dira Nafarroan egindakotzat hartuko industri-elementuak aipatu lurralde horretan entregatu eta instalatzea, baldin eta elementuak prestatu eta fabrikatzeko lanak lurralde komunean egiten badira eta instalazio edo muntaketaren kostua ez bada kontraprestazioaren guztirakoaren 100eko 15etik goitikoak.

3gn. Energia elektrikoaren ekoizleek egindako entregak, baldin eta zentro sortzaileak Nafarroako lurraldean kokatuak badaude.

4gn. Ondasun higigarri korporalen gainerako entregak, baldin eta jasotzailearen eskura uzteko prozesua Nafarroako lurraldetik gauzatzen bada. Ondasunak garraiatu behar badira jasotzailearen eskura uzteko, bidaia edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, entregak han gauzatu direla ulertuko da.

5gn. Ondasun higiezinen entregak, ondasunak Nafarroako lurraldean daudenean.

B) Zerbitzu-prestazioak.

1go. Zerbitzu-prestazioak Nafarroan egintzat hartuko dira, aipatu lurraldetik egiten badira.

2gn. Aurreko idazatian xedatutakoa gora-behera, ondasun higiezinekin zuzenean lotutako prestazioak, ondasun horiek kokatuak dauden lurraldean egin direla ulertuko da.

3gn. Horretaz gain, aurreko idazatietan xedatutakoan ez dira sartzen, ezta ere, aseguru eta

kapitalizazio eragiketak, zeinei dagokienez aplikatuko baitira Hitzarmen Ekonomiko honetako 31. artikuluan bildutako arauak.

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa gora-behera, Estatuko Administrazioaren esku geldituko da zerga ordainaraztea, sujetu pasiboaren helbide fiskala lurralde komunean kokatua dagoenean, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esku, helbide fiskala lurralde horretan dagoenean, honako eragiketa hauetan:

1go. Nekazaritza-, oihanzaintza-, abeltzaintza- edo arrantza-ustiatiegiek eta arrantzuntzietako armadoreek egiten dituzten natur produktuen entregak, beti ere produktu horiek beren labore, ustiategi edo harrapaketatik datozenak eta eraldaketa prozesurik jasan ez dutenak direnean.

2gn. Garraio zerbitzuak, barne harturik aldaira, atoian eramate eta garabikoak.

3gn. Garraiobideak errentan ematea.

7. Batasunaren barreneko eskurapenei dagokien Zergaren ordainarazpenari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:

a) Nafarroaren esku geldituko da Batasun barreneko eskurapenengatiko Zergaren ordainarazpena, eskuratzaileak zerga bakar-bakarririk Nafarroako Foru Komunitateari ordaintzen dioten sujetu pasiboak direnean.

b) Zerga bi Administrazioei batera ordaintzen dioten sujetu pasiboek egindako Batasun barreneko eskurapenengatiko Zergaren ordainarazpena, bataren edo bestearen esku geldituko da, hurrengo artikuluko 1. arauan xedatutakoa aplikatuz ateratzen den proportzio berean.

c) Aurreko a) eta b) arauetan ezarritako irizpideak aplikatuko dira, baita ere, ondasunen Batasun barreneko garraioetarako, horien osagarri diren zerbitzuetarako eta aurreko horietako bitartekaritzako zerbitzuetarako, baldin eta destinatzaileak jakinarazten badio zerbitzu-emaileari Espainian egotzitako identifikazio zenbaki bat, Balio Erantsiaren gaineko Zergarako.

d) Partikularrek edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabeko edo Zergatik salbuetsitako eragiketetan diharduten pertsona edo entitateek Batasunaren barrenean eskuratzen dituzten garraiobide berriengatiko Zergaren ordainarazpena, garraiobidea non matrikulatzen den behin betiko, hango Administrazioaren esku geldituko da, lurralde komuna edo nafarra izan.

8. Aurreko 7. zenbakian xedatutakoa gora-behera, Estatuko Administrazioaren esku geldituko da zerga ordainaraztea, sujetu pasiboaren hel-

bide fiskala lurralde komunean kokatua dagoenean, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esku, helbide fiskala lurralde horretan dagoenean, honako eragiketa hauetan:

a) Batasun barreneko ondasun-eskurapenak, Zergari lotuak hala aukeratzen delako edo Zergaren arautegian ezarritako gehieneko kopurua gaintzen delako, Zergaren kenketa erabateko edo partzialerako eskubiderik sortzen ez duten eragiketetan soilik diharduten sujetu pasiboek eginak, edo enpresari edo profesional bezala jarduten ez duten pertsona juridikoei eginak.

b) Erregimen erraztuan, nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-erregimen berezian, eta baliokidetasun-errekarguaren erregimenean dauden ondasunen Batasun barreneko eskurapenak.

9. Ondasun-entrega eta zerbitzu-prestazioengatik, egoitza enpresari edo profesionalentzako Zergaren aplikazio eremuan ez duten pertsona edo entitateek egindakoengatik, aipatu enpresari edo profesionalak hartzen badira entrega eta prestazioen sujetu pasibotzat, aurreko 7. zenbakiko a) eta b) arauak aplikatuz ateratzen denaren arabera ordainduko da zerga.

10. Egoitza Espainian ez duten enpresari edo profesionalak egindako eragiketei dagokien Zergaren aplikazioan, aurreko zenbakian aipatu gora-behera gertatzen ez denean, Estatuko Administrazioaren esku geldituko da zergaren ordainarazpena eta bidezko diren itzulketak egitea.

11. Sujetu pasiboek jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergatik egin behar diren kenketek, ordainarazpena edozein Administrazioaren esku badago ere, bi Administrazioen aurrean izanzen dute eragina, Hitzarmen honetan xedatutakoarekin bat.

29. artikulua. Zergaren Kudeaketa eta Ikuska-pena.

Zergaren kudeaketari dagokionez, zerga bi Administrazioei ordaintzeko kasuetan, honako arau hauek aplikatuko dira:

1go. Zergaren likidazioen emaitza egotziko zaie Estatuko eta Nafarroako Administrazioei, kontraprestazioen bolumenaren proportzioan, horri kenduta Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta, halakorik bada, baliokidetasun erreargua, karga jasandako ondasun-entrega eta zerbitzu-prestazioei dagokiena, bai eta, halaber, kenketerako eskubidea sortzen duten eta urte natural bakoitzean dagozkien lurraldeetan egindakotzat hartzen diren salbuetsitakoak ere.

2gn. Urte natural bakoitzean behin-behinekoz aplikatzeko proportzioak izanen dira aurreko urteko eragiketen arabera zehazten diren haiexek.

Jarduera hasten den lehenbiziko urte naturaleko likidazio-aldietan behin-behinekoz aplikatzeko den proportzioa sujetu pasiboak berak finkatuko du, lurralde bakoitzean egin gogo dituen eragiketen arabera, deusetan ukatu gabe dagokion azken erregularizazioa.

Aurreko bi lerroaldeetan ezarritakoa gora-behera, aurrekoa ez bezalako proportzio behin-behinekoa aplikatzen ahalko da, Hitzarmen Ekonomiko honetako 61. artikuluan ezarritako Koordinazio Batzordeari jakinarazi eta gero, honako kasu hauetan:

a) Aktiboen ekarpena, zatiketa eta bategitea.

b) Jarduerearen hasiera edo gelditzea lurralde batean edo bestean, edo aurreko lerroaldeetan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulaturako proportzioaren aldaketa garrantzitsua.

3gn. Urte natural bakoitzari dagokion Zergaren azken aitorten-likidazioan, sujetu pasiboak behin betiko proportzioak kalkulatuko ditu, denbora horretan egindako eragiketen arabera, eta aurreko likidazio-aldietan Administrazioetako bakoitzarekin egindako aitortpenen behar den erregularizazioa egingen du.

4gn. Zerga bi Administrazioei ordaindu behar dioten sujetu pasiboek dagokien Ogasun Ordezkaritzan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aurkeztuko dituzte, epeen barrenean eta erregelamenduko betebeharrak betez, indarra duten xedapenetan eskatzen diren agiriak eta, hala behar bada, bidezko diren aitorten-likidazioak, zeinetan paratuko baitira, beti ere, behin-behinekoz edo behin betikoz aplikatu beharreko proportzioak eta bi Administrazioen aurrean ateratzen diren kuotak edo itzulketak.

5gn. Likidazio-aldi bakoitzean sortutako zerga-kuoten zenbatekoa handiagoa bada denbora berari dagokion kuota kengarrien kopurua baino, sujetu pasiboek ordaindu beharko diete ateratzen diren kuoten kopurua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Ogasun Ordezkaritzari, bakoitzari dagokion proportzioan.

6gn. Kenkarien kopurua sortutako kuotena baino handiagoa izateagatik, likidazio-aldi bakoitzean gertatu diren kenketak egin ezin izan dituzten sujetu pasiboek, beren aldeko saldoa itzul dakien eskatzeko eskubidea izanen dute, bidezkoa den kasuetan, Zergaren arautegiaren arabera.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Estatukoaren esku geldituko da bidezko diren itzulketak egitea, bakoitzari dagokion proportzioan.

7gn. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingen da:

a) Zerga soil-soilik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo, bestela, Estatukoari ordaindu behar dioten sujetu pasiboaren ikuskapena, aipatu Administrazioetako bakoitzaren tributurikuskatzaitzaren esku geldituko da.

b) Lurralde komunean eta nafarrean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan zerga ordaindu behar duten sujetuen ikuskapena honako arau hauen arabera egingen da:

Lehenbizikoa. Sujetu pasiboek helbide fiskala lurralde komunean badute, Estatuko Administrazioeko organoek egingen dute frogapena eta ikerketa, sujetu pasiboaren tributur-egoera erregularizaturako dutelarik, bi Administrazio eskudunei dagokien tributazio-proportzioa sartuz.

Bigarrena. Sujetu pasiboek helbide fiskala lurralde nafarrean badute, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunek egingen dute frogapena eta ikerketa, deusetan ukatu gabe Estatuko Administrazioaren lankidetzan, eta eragina izanen dute eskudun diren Administrazioetan, barne hartuz haietako bakoitzari dagokion tributazio-proportzioa.

Sujetu pasiboak erregimen komuneko lurraldean egiten baditu bere eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago, harreman-puntuaren arabera, Estatuko Administrazioa izanen da eskuduna, Foru Komunitateko Administrazioaren lankidetzan ukatu gabe.

Hirugarrena. Ikuskapenak egingen dira Administrazio eskudunaren arautegiaren arabera, aurreko arauetan ezarritakoarekin bat.

Baldin eta jarduketa horien ondorioz ateratzen bada ordaindu beharreko zorra edo itzuli beharreko kopurua, bi Administrazioei dagokiena, kobrantza edo ordainketa jardun duen Administrazioaren esku geldituko da, deusetan ukatu gabe haien artean bidezko diren konpentsazioak.

Laugarrena. Aurreko arauetan ezarritakoa ulertuko da deusetan ukatu gabe Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari frogaketa eta ikerketa arloan bere lurraldean dagozkion ahalmenak, haren jarduketek ezin izanen dutelarik ondorio ekonomikorik izan zergapekoen aurrean, Administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondorioz egindako behin betiko likidazioei dagokienez.

Bosgarrena. Administrazio eskudunak frogaketan finkatzen dituen proportzioek eragina izanen dute sujetu pasiboaren aurrean likidatutako obligazioei dagokienez, deusetan ukatu gabe bi Administrazioen artean behin betikoz erabakitzen dituztenak.

8gn. Batasun barreneko entrega eta eskurapenen aitortpen laburbilduak eta hirugarren pertsonekin egiten diren eragiketenak aurkeztuko dira sujetu pasiboan frogaketa eta ikerketarako esku-mena bere gain esleitua duen zerga-Administrazioan.

30. artikulua. Zerga Berezien ordainarazpena.

1. Foru Komunitatearen esku geldituko da fabrikazioko Zerga Berezien ordainarazpena, haien sortzapena Nafarroako lurraldean gertatzen denean.

Fabrikazioko Zerga Berezien itzulketei dagokienez, zein Administrazioari ordaindu zaizkion eskatzen den itzulketarako kuotak, Administrazio haretzek itzuliko ditu. Dena dela, ezinezkoa bada zehaztea zein Administrazioari ordaindu zitzaizkion kuotak, zein lurraldetan sortzen den itzulketarako eskubidea, hangoak itzuliko ditu.

Nafarroan kokatutako establezimenduen kontrola eta baimen-erregimena Foru Komunitatearen esku geldituko dira. Dena dela, gordailu fiskalak baimentzeko, beharrezkoa izanen da Koordinazio Batzordeak alde zuzenetik erabakia hartzea.

2. Nafarroako Foru Komunitateak exijituko du Garraiobide jakin batzuen gaineko Zerga Berezia, garraiobideak behin betiko matrikulatzen dituztenean Nafarroako lurraldean.

Matrikulazioa egiten da arlo horri buruz indarra duen arautegian ezarrita dauden irizpideen arabera. Pertsona fisikoek garraiobidea matrikulatuko dute helbide fiskala duten probintzian.

Zerga honen kuotei dagozkien itzulketak, kuotak ordaindu zitzaizkion Administrazioak hartuko ditu bere gain.

3. Foru Komunitatearen esku dauden Zerga Berezien ordainarazpenean, Estatuko lurraldean une bakoitzean indarra duten oinarritzko printzipio, arau sustantibo eta formalak aplikatuko dira. Dena dela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortpeneko eta dirusarrerako ereduak onesten ahalko ditu, bertan lurralde komunekoetan bildutako datu berberak agertuko direla, bai eta, halaber, seinalatu ere likidazio-aldi bakoitzeko dirusarrerarako epeak, zeinak funtsean Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik oso hurbil egonen baitira.

Hirugarren Sekzioa **Aseguru sarien gaineko zerga**

31. artikulua. Aseguru-sarien gaineko zerga.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen esku geldituko da Aseguru Sarien gaineko zerga ordainaraztea, arriskua edo konpromisua, aseguru eta kapitalizazio eragiketetan, Nafarroako lurraldean aurkitzen bada.

2. Ondorio hauetarako, ulertuko da arriskua Nafarroako lurraldean aurkitzen dela honako arau hauek betez gero:

Lehenbizikoa. Asegurua higieziari buruzkoa denean, ondasunak aipatu lurraldean kokatzen direnean. Arau bera aplikatuko da aseguru ondasun higieziari eta haien edukinari buruzkoa denean, edukin hori aseguru-poliza berberak estaltzen badu. Asegurua baldin bada higiezin batean dauden ondasun higigarriari buruzkoa soilik, barne hartu gabe merkataritzako joan-etorrian dabilzan ondasunak, aipatu higieziari lurralde horretan kokatua dagoenean.

Bigarrena. Asegurua edozein motatako ibilgailuei buruzkoa baldin bada, ibilgailuaren matrikulazioa Nafarroako lurraldean egin denean.

Hirugarrena. Asegurua baldin bada aseguru-hartzaileari bidaiaren batean edo ohizko bizilekuk kanpo gerta dakizkiokeen arriskuei buruzkoa, eta haren iraupena lau hilabete edo gutxiagokoa bada, aseguru-hartzaileak kontratua Nafarroako lurraldean sinatzen duenean.

Laugarrena. Aurreko arauetan adierazi gabeko kasu guztietan, aseguru-hartzaileak ohizko bizilekua Nafarroan duenean edo, pertsona juridikoa izanik, kontratuak aipatzen duen sozietatearen edo sukurtsalaren egoitza aipatu lurraldean dagoenean.

3. Bizi-aseguruen kasuan, ulertuko da konpromisua Nafarroako lurraldean aurkitzen dela, aseguru-hartzaileak bertan duenean ohizko egoitza, pertsona fisikoa bada, edo sozietatearen egoitza edo sukurtsal bat, kontratuak sukurtsala aipatzen badu, pertsona juridikoa bada.

4. Aurreko zenbakiak kontuan hartuagatik arau berariazkoak ez badago lekuari buruz, Nafarroako lurraldean egindakotzat hartzen dira aseguru eta kapitalizazio eragiketak, kontratu-egilea denean enpresaria edo profesionala, bere enpresa- edo lanbide-jarduerak gauzatzeko eragiketak hitzartzen dituen, eta haren jarduera ekonomikoaren egoitza aipatu lurraldean duenean edo bertan duenean establezimendu iraunkor bat edo, bestela, bere helbidea.

5. Zerga ordainarazteko, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuko lurraldean une bakoitzean indarra duten arau sustantibo eta formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateko Administrazioak aitortpeneko eta dirusarrerako ereduak onesten ahalko ditu, bai eta, halaber, seinlatu ere dirusarrerarako epeak, zeinak funtsean Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik oso hurbil egon behar baitira.

Laugarren Sekzioa **Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergak**

32. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen esku dagoen ordainarazpena.

1. Foru Komunitatearen esku gelditzen da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergaren ordainarazpena honako kasu hauetan:

A) Kostubidezko ondare eskualdaketak:

1go. Ondasun higiezinaren kostubidezko eskualdaketa, bai eta haiek berekin dituzten edozein motatako eskubideen kostubidezko lagapenean ere, bermekoa barne, ondasunak Nafarroan kokaturik badaude.

Ondorio hauetarako, ondasun higiezinaren eskualdaketatik hartuko dira baloreen kostubidezko eskualdaketak, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 108. artikuluan aipatzen direnak.

2gn. Ondasun higigarriak, aziendak eta kredituak kostubidez eskualdatzean, bai eta haien gaineko eskubideen kostubidezko lagapenean ere, eskuratzailerak, pertsona fisikoa bada, ohizko egoitza Nafarroan badu eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko izanda, helbide fiskala bertan badu.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gora-behera, akzioak, harpidetza eskubideak, obligazioak eta antzeko tituluak eta gainerako baloreak eskualdatzean, bai eta partaidetza sozialak eskualdatzean ere, eragiketa Nafarroan formalizatzen denean.

3gn. Ondasun higiezinaren gainean edozein motatako eskubideak kostubidez eratzten direnean, baita bermekoa ere, ondasunak Nafarroan kokaturik badaude.

4gn. Ondasun higiezinaren, azienden eta kredituen gainean edozein motatako eskubideak kostubidez eratzten direnean, eskuratzailerak, pertsona fisikoa bada, ohizko egoitza Nafarroan badu eta,

pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea izanda, helbide fiskala bertan badu.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gora-behera, higigarrien hipoteka eta joan-etorririk gabeko bahia eratzean, bermea Nafarroako lurraldean inskribatzen ahal baldin bada.

5gn. Maileguak eratzean, mailegu-hartzaileak, pertsona fisikoa bada, ohizko egoitza Nafarroan badu eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea izanda, helbide fiskala bertan badu.

Dena dela, ondasun-bermea duten maileguak badira, hipotekatutako ondasun higiezinak Nafarroan kokaturik badaude edo bertan inskribatzen ahal badira dagozkien higigarrien hipotekak edo joan-etorririk gabeko bahiak.

Mailegu beraren bermea baldin bada lurralde komunean eta nafarrean kokaturiko ondasun higiezinaren gaineko hipoteka edo bi lurraldeetan inskribatzen ahal den higigarrien hipoteka edo joan-etorririk gabeko bahia, Administrazio bakoitzari ordainduko dio zerga, batzuei eta besteei egozten zaien erantzukizunaren araberrako proportzioan eta, eskrituran horrelako zehaztasunik ageri ez bada, ondasunetan frogatutako baloreen araberrako proportzioan.

6gn. Fidantzak, higiezinaren ez diren errentamenduak eta pentsioak eratzean, fidantzatutako hartzekodunak, errenta-hartzaileak edo pentsiodunak, hurrenez hurren, pertsona fisikoa izanda, ohizko egoitza Nafarroan badu eta, pertsona juridikoa edo nortasunik gabeko entea bada, helbide fiskala bertan badu.

7gn. Ondasunen administrazio-kontzesioetan, ondasunak Nafarroan badaude kokaturik, eta obrak egin edo zerbitzuak ustiatzean, Nafarroan egin edo ematen badira.

B) Sozietate-eragiketak:

1go. Sozietateak eratzean eta integratutako sozietateen iraungipenaren dakarren bategite eta sozietate berria sortzean, sortutako enterearen helbide soziala Nafarroan kokaturik badago.

2gn. Sozietateen kapitala handitu eta urritzen den kasuetan, zurgapen bidezko bategitean, eraldatzean, deuseztatu eta zatitzean, sozietate aldatuak, zurgatzaileak, eraldatuak, deuseztatuak edo zatituak helbide fiskala Nafarroan baldin badu.

C) Egintza juridiko dokumentatuak:

1go. Notaritzako eskritura, akta eta testigantzetan, Nafarroan baimendu, eman edo luzatzen badira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gora-behera, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko kargaren mailaz mailako kuotari lotutako kasuetan, Nafarroan kokatua badago ondasunak edo egintzak inskribatu edo aipatu behar diren Erregistroa.

2gn. Ganbio-letretan eta igorpenentzat erabiltzen diren agirietan, edo letra horien ordezkotzat diren, beraien libramendua Nafarroan egiten denean eta, atzerrian luzatu badira, haien lehenbiziko edukitzaileak ohizko egoitza edo helbide fiskala Nafarroan duenean, pertsona fisikoak izan edo pertsona juridiko edo nortasunik gabeko entea izan. Nafarroako Foru Komunitateak aipatu zergagaiak lurralde komunean dagoen zerga bera ezarriko die.

3gn. Gordekin edo gordailu-agiri eskualdagarrietan, haiek jaulki edo luzatzen dituen entitatearen helbide fiskala Nafarroan kokatua badago.

4gn. Sailean jaulkitako ordainduko, bono, obligazio eta gainerako antzeko tituluetan, besteren kapitalaren adierazgarri direnetan, zeinengatik ordaintzen baita kontraprestazio bat, alegia, jaulkiperaren truke ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean berreskuratzeko konprometitutakoaren arteko aldea, Nafarroan luzatzen direnean.

5gn. Merkataritzako fede-emaeleek balore-titulua sinatzen dituztenei jabetza-titulua emateko luzatzen dituzten polizetan, kontuhartzea Nafarroan egiten denean.

6gn. Badaezpadako anotazioetan, Nafarroan kokatutako erregistro publikoetan egiten direnean.

Anotazio berak eragiten badie Nafarroan eta lurralde komunean kokatutako ondasunei, zein agintaritzak manatzen duen anotazioa, haren jurisdikzioko Administrazioari ordainduko zaio zerga.

7gn. Izaera jurisdikzionalako gainerako egintza juridiko dokumentatuetan, egintzak gertatu edo sortu diren organoaren egoitza Nafarroan dagoenean eta, administratiboetan, Nafarroatik luzatzen direnean.

2. Lurralde komuneko tributazio bera jasanen dute aurreko 1. idazatik A.2 zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen diren baloreen eskualdaketa eta sozietateak eratu, haien kapitala handitu eta urritu, eraldatu, bategin, zatitu eta deuseztatzeko egintzak.

34. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen esku dagoen ordainarazpena.

1. Foru Komunitatearen esku gelditzen da zerbitzuen prestazioarengatik edo jarduerarengatik exijitzaileentzat tasen ordainarazpena, zuzenbide

publikoaren araubidean berak aurrera eramaten dituenena.

2. Foru Komunitatearen esku gelditzen da erri-fa, tonbola, postura, konbinazio aleatorio eta zozketa, enbido edo azare jokoen gaineko tasen ordainarazpena, beraien baimentze, gauzatze edo antolatzea Nafarroan gertatzen denean, eta erregimen komunean aplikatzen den arautegi berbera aplikatuko da, zergagaiari eta sujetu pasiboari dagokienez.

35. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen esku dagoen ordainarazpena.

Foru Komunitatearen esku geldituko da prezio publikoaren ordainarazpena, berak aurrera eramandako ondasun-entrega edo zerbitzu publikoaren prestazioengatik sortzen direnean.

37. artikulua. Delitu fiskala.

Kode Penalean araututakoaren arabera, arauhausteak Ogasun Publikoaren aurkako delitutzat jo daitezkeen kasuetan, jardun diharduen Administrazioeko organoak erru-oharpena pasako dio jurisdikzio eskudunari eta ez du administrazio-prozedurarekin segituko, harik eta agintaritzak judizialak epai irmoa eman, jarduketak sobreseitu edo artxibatu edo Ministerio Fiskalak espedienteak itzuli arte.

38. artikulua. Ezadostasunak eta helbide fiskalaren aldaketa.

1. Zergapekoen helbideratzeari buruz gerta daitezkeen ezadostasunak, haiei entzutea eman eta gero, Hitzarmen honetako 45. artikuluan arautzen den Arbitraje Batzordeak ebaztuko ditu.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren sujetu pasiboak beharturik daude bi Administrazioei jakinaraztera egoitzaren edo helbide fiskalaren aldaketak, Zerga exijitzeko eskumenean aldaketak eragiten dituztenean.

2. a) Lurralde komun edo nafarreko egoiliar izanik, ohizko egoitza batatik bestera pasatzen duten pertsona fisikoek beren zerga-obligazioak beteko dituzte egoitza berriaren arabera, hori baldin bada harreman-puntua.

Horretaz gain, hurrengo b) puntuan ezarritakoaren ondorioz, egoitza aldaketarik ez dela izan kontsideratzen bada, pertsona fisikoek aurkeztu beharko dituzte kasuan kasuko aitorten osagarriak, berandutza-korrituak sartuz.

b) Ez dute ondorioz ekarriko benetako zerga-ordainketa txikiagoa lortzeko xedearekin egiten diren egoitza-aldaketak.

Non eta egoitza berrian hiru urtez jarraian bederen irauten ez den, usteko da ez dela aldaketarik gertatu, Pertsona Fisikoen Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, honako gora-behera hauek tartean direnean: lehenbizi, egoitza-aldaketa gertatzen den urtean edo hurrengoan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria 100eko 50 handiagoa bada aldaketa aurreko urtekoa baino; bigarren, egoera hori gertatzen den urtean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatiko benetako zerga-ordainketa txikiagoa bada aldaketa aurreko egoitzaren lurraldean aplikatzekoa zen arautegiaren arabera aterako litzatekeena baino; eta hirugarren, berriz ere ohizko egoitza aipatu lurraldean izaten bada.

45. artikulua. Arbitraje Batzordea.

1. Arbitraje Batzorde bat eratzen da, Hitzarmen hau interpretatu eta norbanakoen zerga-kontuekin lotutako kasu zehatzei aplikatzerakoan Administrazio interesatuen artean sortzen diren gatazkez arduratzeko.

Era berean, Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatekoaren artean edo azken horren eta Komunitate Autonomo bateko Administrazioaren artean sortzen diren gatazkek ere ebatziko ditu, beti ere, ordainarazpena Nafarroako Foru Komunitatearen esku dagoen zergen harreman-puntuak aplikatzeari dagokionez eta baterako zerga-ordainketaren kasuetan, dela Sozietateen gaineko Zerga dela Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Administrazio bakoitzari dagokion proportzioa zehazterakoan.

2. Arbitraje Batzordeko buru Auzitegi Goreneko epaile bat izanen da, Auzitegiko lehendakariak bost urtetarako hautatuko duena, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak proposatuta eta Nafarroako Auzitegi Nagusiari entzun eta gero.

3. Batzorde honetako kide izanen dira:

a) Estatuko Administrazioko lau ordezkari, Ekonomi eta Ogasun ministroak bereiziko dituenak.

b) Foru Komunitateko lau ordezkari, Nafarroako Gobernuak bereiziko dituenak.

Gatazkek Komunitate Autonomo bateko Administrazioari eragiten dionean, Ekonomi eta Ogasun Ministerioak Estatuko Administrazioko ordezkari baten ordezkari Komunitate Autonomoko Kontseilu Exekutiboak edo Gobernuak bereiziko duten beste bat paratuko du.

4. Arbitraje Batzordeak egiten duen lehenbiziko bileran erabakiko ditu haren aurrean jarraitu

beharreko prozedura, legitimazio eta epeetarako arauak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen printzipioetan oinarrituz.

5. Arbitraje Batzorde honen erabaki hauen aurka, betearazleak izateari utzi gabe, soil-soilik administrazioarekiko errekurtsioak aurkezten ahal dira, Auzitegi Goreneko horretarako Sailean.

6. Eskumen-gatazka sortzen denean, ebatzen ez den bitartean, eztabaidan sartutako zergapeko-ei kargak ezartzen dizkien Administrazioak segituko du haien gainean aginduak ematen, haien artean zerga-arloan egin beharreko zuzenketa eta konpentsazioak ukatu gabe, atzera eramanak zerga-arloko foru berria erabili behar den eguneraino, Arbitraje Batzordeak erabakitzen duenaren arabera.

50. artikulua. Konpentsazioak.

1. Foru Komunitatearen guztirako ekarpenetik kenduko dira, konpentsazioagatik, honako kopuru hauek:

a) Hitzartu gabeko zergei dagokien zati egozgarria.

b) Zerga-izaerarik ez duten Estatuko dirusarre-ri dagokien zati egozgarria.

c) Estatuko Aurrekontu Orokorretan defizitari dagokion zati egozgarria.

d) Hitzarmen Ekonomiko honetako 9.3 eta 11.3 artikuluetan aipatzen diren kopuruak.

2. Aurreko 1. zenbakiko a), b) eta c) letretan aipatzen diren kopuruak zehaztuko dira hurrengo artikuluan ezartzen den egozketa-indizea aplikatuz.

59. artikulua. Zeharkako zergengatiko doikuntza.

Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik Nafarroak benetan biltzen duenari gehituko zaio ondoko formula matematikoaren emaitza:

$$\text{Doikuntza} = c \text{ RR}_{AD+} (c - d) H$$

Horietan honako hauek direlarik:

$$H = \frac{\text{RR}_N}{d} \quad \text{baldin} \quad \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \leq \frac{d'}{1 - d'}$$

$$H = \frac{\text{RR}_{TC}}{d''} \quad \text{baldin} \quad \frac{\text{RR}_N}{\text{RR}_{TC}} \geq \frac{d'}{1 - d'}$$

RR_{TC} = Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik, lurralde komuneko urteko benetako dirubilketa,

Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziaren Ordezkaritzek jasoa.

RR_N = Nafarroako urteko benetako dirubilketa BEZagatik.

RR_{AD} = urteko benetako dirubilketa inportazioengatik.

$$c = \frac{\text{Nafarroako Egoiliarren Kontsumoa}}{\text{Egoiliarren Kontsumoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$d = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

v = Nafarroako Balio Erantsi Gordina faktoreen kostuaren gainekoa.

V = Id. Estatukoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

f = Nafarroako Kapital-eraketa Gordina.

F = Id. Estatukoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

e = Nafarroako esportazioak.

E = Id. Estatukoak (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

i = Nafarroako inportazioak, Europako Batasunetik datozenak.

I = Id. Estatukoak (Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta), Europako Batasunetik datozenak.

$$d = \frac{v - f - e + i}{V' - F' - E' + I}$$

V' = Estatuko Balio Erantsi Gordina (Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

F' = Estatuko Kapital-eraketa Gordina (Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

E' = Estatuko esportazioak (Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

I' = Estatuko inportazioak (Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta), Europako Batasunetik datozenak.

$$d'' = \frac{V'' - F'' - E'' + I''}{V - F - E + I}$$

V'' = Estatuko Balio Erantsi Gordina (Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

F'' = Estatuko Kapital-eraketa Gordina (Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

E'' = Estatuko esportazioak (Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta).

I'' = Estatuko inportazioak (Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte, Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta), Europako Batasunetik datozenak.

2. Fabrikazio Zerga Bereziengatik, Alkoholaren eta Edari Eratorrien gainekoagatik, Tarteko Produktuen gainekoagatik, Garagardoaren gainekoagatik, Hidrokarburoen gainekoagatik eta Tabakogaien gainekoagatik, Nafarroako benetako dirubilketari gehituko zaio ondotik aipatzen diren formula matematikoen emaitza:

a) Alkohola, Edari Eratorriak eta Tarteko Produktuak:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ } RR_{AD} + (a - b) H$$

Horietan honako hauek direlarik:

$$H = \frac{RR_N}{b} \quad \text{baldin} \quad \frac{RR_N}{RR_{TC}} \leq \frac{b}{1 - b}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1 - b} \quad \text{baldin} \quad \frac{RR_N}{RR_{TC}} \geq \frac{b}{1 - b}$$

RR_N = Nafarroako urteko benetako dirubilketa, Alkoholaren eta Edari Eratorrien eta Tarteko Produktuengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{TC} = lurralde komuneko urteko benetako dirubilketa, Euskal Autonomi Elkarte barne, Alkoholaren eta Edari Eratorrien eta Tarteko Produktuengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{AD} = urteko benetako dirubilketa inportazioengatik, Alkoholaren eta Edari Eratorrien eta Tarteko Produktuengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

$$a = \frac{\text{Nafarroako Egoiliarren Kontsumoa}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$b = \frac{\text{Nafarroaren dirubilketa-ahalmena}}{\text{Estatuaren dirubilketa-ahalmena (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

b) Garagardoa:

$$\text{Doikuntza} = a' \text{ } RR_{AD} + (a' - b') H$$

Horietan honako hauek direlarik:

$$H = \frac{RR_N}{b'} \quad \text{baldin} \quad \frac{RR_N}{RR_{TC}} \leq \frac{b'}{1 - b'}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1 - b'} \quad \text{baldin} \quad \frac{RR_N}{RR_{TC}} \geq \frac{b'}{1 - b'}$$

RR_N = Nafarroako urteko benetako dirubilketa, Garagardoarengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{TC} = Lurralde komuneko urteko benetako dirubilketa, Euskal Autonomi Elkartea barne, Garagardoarengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{AD} = urteko benetako dirubilketa inportazioengatik, Garagardoarengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

$$a' = \frac{\text{Nafarroako Egoiliarren Kontsumoa}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$b' = \frac{\text{Nafarroaren dirubilketa-ahalmena}}{\text{Estatuaren dirubilketa-ahalmena (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

c) Hidrokarburoak:

$$\text{Doikuntza} = a'' RR_{AD} + (a'' - b'') H$$

Horietan honako hauek direlarik:

$$H = \frac{RR_N}{b''} \quad \text{baldin} \quad \frac{RR_N}{RR_{TC}} \leq \frac{b''}{1 - b''}$$

$$H = \frac{RR_{TC}}{1 - b''} \quad \text{baldin} \quad \frac{RR_N}{RR_{TC}} \geq \frac{b''}{1 - b''}$$

RR_N = Nafarroako urteko benetako dirubilketa, Hidrokarburoengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{TC} = lurralde komuneko urteko benetako dirubilketa, Euskal Autonomi Elkartea barne, Hidrokarburoengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{AD} = urteko benetako dirubilketa inportazioengatik, Hidrokarburoengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

$$a'' = \frac{\text{Nafarroako Egoiliarren Kontsumoa}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

$$b'' = \frac{\text{Nafarroaren dirubilketa-ahalmena}}{\text{Estatuaren dirubilketa-ahalmena (Ceuta eta Melilla kenduta)}}$$

d) Tabakogaiak:

$$\text{Doikuntza} = a''' RR_{TC} - [(1 - a''') RR_N]$$

Horietan honako hauek direlarik:

RR_N = Nafarroako urteko benetako dirubilketa, Tabakogaiengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

RR_{TC} = lurralde komuneko urteko benetako dirubilketa, Euskal Autonomi Elkartea barne, Tabakogaiengatik Fabrikazio Zerga Bereziagatik.

$$a''' = \frac{\text{Tabako eta tinbre saltokiei, Nafarroan kokatutakoei, entregatutako tabakogaiak}}{\text{Tabako eta tinbre saltokiei, zergaren aplikazio-eremuan kokatutakoei, entregatutako tabakogaiak}}$$

60. artikulua. Doikuntzen kuantifikazio eta likidazioa.

1. Aurreko 58. eta 59. artikuluetan ezarritako doikuntzen kuantifikazio eta likidazioa bi Administrazioen arteko akordioaren bidez eginen dira, bigarren kapituluaren finkatutako prozeduraren antzeko bati jarraituz.

2. Aurreko 59. artikuluan aipatzen diren zergengatik, Nafarroak benetan biltzen duen diruaren kopuruari dagokionez, alde handia badago dirubilketa-ahalmenaren indizeekiko, Zerga Berezien kasuan, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza indizearekiko, doitu eginen dira indize horiek, beti ere tarte diferentzial bat utziko delarik, aipatu alde horiek gertatzen diren urteko doikuntzak egiteko.

61. artikulua. Koordinazio Batzordea.

1. Koordinazio Batzorde bat eratuko da, honako hauek osaturik:

- Estatuko Administrazioaren sei ordezkari.
- Foru Komunitatearen sei ordezkari, Nafarroako Gobernuak bereziak.

2. Koordinazio Batzordeak eskumen hauek izanen ditu:

a) Bidezkotzat jotzen diren azterlanak egitea, foru-araubidea Estatuko zerga-arlokoarekin egitura eta eginkizun aldetik egoki artikulatzeko.

b) Administrazio eskudunei ematea jarduketa irizpide uniformeak, informatika plan eta programak.

c) Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatekoaren artean, ikuskapen arloan, gertatzen diren kasu edo gorabeherak aztertzea.

d) Ekonomi eta Ogasun Ministerioak, Nafarroako Gobernuko Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eta Arbitraje Batzordeak eskatzen dituzten txostenak egitea.

e) Zerga-ondorioak dituzketen balorazio arazoak aztertzea.

f) Harako 53. artikuluan aipatzen den ekarpen ekonomikoa zehaztea, bai oinarri-urtekoa bai bosturteko bakoitzeko gainerakoetakoa, eta bi Administrazioei igortzea, behar den erabakia har dezaten.

g) Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den zenbatekoa eguneratzea, bi Administrazioek onets dezaten.

h) Hitzarmen Ekonomiko honetako 59. eta 60. artikuluetan arautzen diren Zeharkako Zergen doikuntzen kuantifikazio eta likidaziorako metodoa finkatzea.

3. Koordinazio Batzordeak bilera eginen du urtean bi aldiz, bederen, martxoan eta irailean, eta, horietaz gain, bertan ordezkariak duen Administrazioen batek eskatzen duenean.

Laugarren Xedapen Gehigarria. Hitzarmen hau aplikatzeko behar diren arauak, Zerga Bereziei, Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Aseguru Primaren gaineko Zergari buruzkoak, bai eta, halaber, 34. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren tasen ordainarazpenerako arauak ere, Foru Komunitateak ematen ez dituen bitartean, lurralde komunean indarra dutenak aplikatuko dira.

Seigarren Xedapen Iragankorra. Hitzarmen Ekonomiko honetako 25. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa aplikatuko zaie xedapen iragankor honek indarra hartu ondoren eratzen diren sozietate-taldeei.

Zazpigarren Xedapen Iragankorra. Hitzartutako zerga berrien araubide iragankorra honako arau hauei lotuko zaie:

1go. Foru Komunitateak, subrogazioz, bere gain hartuko ditu Estatuko Ogasun Publikoaren zerga-arloko eskubide eta betebeharrak, xedapen honek aipatzen dituen zergen kudeaketa, ikuskapen, berrikusketa eta dirubilketari dagokienez.

2gn. Xedapen honek aipatzen dituen zergak hitzartutzat hartzen diren egunaren aurretik likidatu eta lotutako kopuruek, zerga hauek hitzartuak egon izatera Foru Komunitateari atxikiak beharko zuketuen egoerei dagozkienek, aipatu egunaren ondotik ordaintzen badira, oso-osorik Nafarroako Foru Komunitatearentzat behar dute izan.

3gn. Xedapen honek aipatzen dituen zergak hitzartutzat hartzen diren egunaren aurretik sortutako kopuruak, egun horretatik aurrera likidatutakoak ikuskapen-jarduketan ondorioz, zerga hauen irizpide eta harreman-guneak aplikatuz banatuko dira.

4gn. Bidezko denean, xedapen honek aipatzen dituen zergak hitzartutzat hartzen diren egunaren

aurretik egindako edo egin beharreko likidazioei dagozkien itzulketak, sortzapenaren egunean eskuduna zen Administrazioak eginen ditu, zerga hauen irizpide eta harreman-guneen arabera.

5gn. Nafarroako Foru Komunitateak diktatutako administrazio-egintzak foru-bide administratibotan erreklamatzeko ahalgo dira, haren organoen aurrean. Alderantziz, ordea, Estatuko Administrazioak diktatutakoak, haien eguna edozein delarik ere, Estatuko organo eskudunen aurrean erreklamatzeko ahalgo dira.

Nolanahi dela ere, dagokion dirusarrera egotziko zaio hartzekodun gertatzen den Administrazioari, aurreko araubetara aipatu arauen arabera.

6gn. Zerga-arloko arau-hausteen ondorioetarako, bai eta kasuan kasuko zehapenetarako, balio eta eraginkortasun osoa izanen dute haiei buruz Estatuko Ogasun Publikoan, xedapen honek aipatzen dituen zergen armonizazioak indarra hartu baino lehenagotik, dauden aurrekariak.

7gn. Xedapen iragankor honek aipatzen duen zergen armonizazioak indarra hartzearekin ez dira kaltetuko zergapekoek bereganatuak dituzten eskubideak, aipatu egunaren aurretik diktatutako legeen arabera.

Zortzigarren Xedapen Iragankorra. 1995etik 1999. urtera doan bosturtekoan Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik doikuntza zehaztuko da 59. artikuluko 1. zenbakian eta 60. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bederatzigarren Xedapen Iragankorra. 1998tik 1999. urtera bitartean, Fabrikazio Zerga Bereziengatik, Alkoholaren eta Edari Eratorrien gainekoagatik, Tarteko Produktuen gainekoagatik, Garagardoaren gainekoagatik, Hidrokarburoen gainekoagatik eta Tabakogaien gainekoagatik, Nafarroako benetako dirubilketari gehituko zaizkio:

a) 1. Aduanetan Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko eta Tarteko Produktuen gaineko Zergengatik Estatuak bildutakoaren 100eko 1,60.

2. Negatiboki, Alkoholaren eta Edari Eratorrien gaineko eta Tarteko Produktuen gaineko Zergengatik, lurralde komunean, Aduanetakoak kenduta, lortutako benetako dirubilketaren 100eko 4,30, zati 0,941 eginez, edo Nafarroako benetako dirubilketarena zati 0,059 eginez, alegia, Nafarroako dirubilketaren portzentaia Estatuko totalarekiko, Aduanetan lortutakoa kenduta, 100eko 5,90 baino handiagoa edo txikiagoa den, hurrenez hurren.

b) 1. Aduanetan Garagardoaren gaineko Zerga Bereziarengatik Estatuak bildutakoaren 100eko 1,60.

2. Negatiboki, Garagardoaren gaineko Zerga Bereziarengatik, lurralde komunean, Aduanetakoa kenduta, lortutako benetako dirubilletaren 100eko 0,50, zati 0,979 eginez, edo Nafarroako benetako dirubilletarena zati 0,021 eginez, alegia, Nafarroako dirubilletaren portzentaia Estatu totalarekiko, Aduanetan lortutakoa kenduta, 100eko 2,10 baino handiagoa edo txikiagoa den, hurrenez hurren.

c) 1. Aduanetan Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziarengatik Estatuak bildutakoaren 100eko 2,00.

2. Negatiboki, Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziarengatik, lurralde komunean, Aduanetakoa kenduta, lortutako benetako dirubilletaren 100eko 0,71, zati 0,9729 eginez, edo Nafarroako benetako dirubilletarena zati 0,0271 eginez, alegia, Nafarroako dirubilletaren portzentaia Estatu totalarekiko, Aduanetan lortutakoa kenduta, 100eko 2,71 baino handiagoa edo txikiagoa den, hurrenez hurren.

d) Lurralde komuneko benetako dirubilletari Tabakogaien gaineko Zerga ateratzen denari aplikatzen bazaio Zerga honen aplikazio eremuan dauden Tabako eta Tinbre saltokiei entregatutako tabakogaien balioari dagokionez Nafarroan kokatutako saltokiei (mota horretakoei) entregatutako tabakogaien urteko balioaren portzentaia, bada, kopuru hori ken arestian aipatu portzentaia erahun bitarteko osagarria zerga-kontzeptu beragatik Nafarroan benetan bildukoari aplikatuz ateratzen dena eginez gelditzen den aldea.

Tabakogaien fabrikazio eta merkataritzako oraingo araubidea aldatzen bada, bi Administrazioek, biak ados jarririk, doikuntza honen berrikuspenari ekingo diote.

2. Hidrokarburoen gaineko Zergagatik Nafarroan lortutako benetako dirubilletak 100eko 7tik goitiko aldea baldin badu, eta Alkoholaren eta Edari Eratorrien, Tarteko Produktuen eta Garagardoaren gaineko Zerga Bereziarengatik 100eko 10etik goitikoa –zeinekiko eta aurreko a) 2, b) 2 eta c) 2 letren azken zatian bildutako indizeak, haietako bakoitzagatik, Estatu osoan benetan bildutakoari aplikatuz ateratzen denarekiko–, zuzendu eginen dira aipatu indize horiek, alde horiek gertatzen diren urteko doikuntzak egiteko.

Zuzenketa hori eginen da aplikatuz aldaketa positibo edo negatiboko portzentaia, aurreko leroaldean ezarritako mugak gainditzen dituen, aurreko a) 2, b) 2 eta c) 2 letren azken zatian bildutako kasuan kasuko indizeei.

Hamargarren Xedapen Iragankorra. Koordinazio Batzordeak finkatuko ditu 1998. urtean Administrazio baten edo bestearen alde ateratzen diren konpentsazio finantzarioak, Fabrikazio Zerga Berezien armonizazio eta hitzarmena direla medio.

1999. urteari dagozkion konpentsazio finantzarioak zehaztuko dira 1998. urteko konpentsazioei aplikatuz aldaketa indize bat, zeina kalkulatu baita zatiketa eginez Fabrikazio Zerga Bereziatiko bakoitzarengatik 1999. urtean haien aplikazio eremuan izandako dirusarreraren eta zerga-kontzeptu berberengatik 1998. urtean izandako dirusarreraren artean."

F Saila:
GALDERAK

Beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak) egiteko liberatuen kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak) egiteko liberatuen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 13ko 66. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Foru Parlamentari andreak beste ikasketak (lizentziaturak, doktoretza tesiak e.a.) egiteko liberatuen kopuruari buruz egin duen galderari erantzuteko, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

A) 1996/97 ikasturtea:

– Beste ikasketak egiteko liberatuak: 8

A1 modalitatea (lizentziaturak): 5

- Natividad Iraizoz Sanzol, Iruñeko “José M^a Huarte” HLHIP. Psikologia.
- Rita Maeztu Rodrigo, Tafallako Eskualdeko Orientatzailea. Psikologia.
- Carlos Fco Soler Huguet, Murchanteko HLHIP. Hezkuntzaren Zientziak.
- Teresa Labalde Salinas, Mutiloako HLHIP. Hezkuntzaren Zientziak.
- Balanca E. Indart Sarratea, Barañaingo “Alaiz” HLHIP. Hezkuntzaren Zientziak.

A2 modalitatea (doktoretza tesia): 1

- Fco. Javier Enma Fernández, Mendillorriko HLHIP. “Alfabetizazioa, eskolaratzea eta gizartea Iruñean (1843-1898)”.

A3 modalitatea (espezializazio ikasketak): 1

- Carmen Guembe Gil, Iruñeko “Basoko” BHI. Atzerriko Hizkuntzetako espezializazio ikasketak.

B modalitatea (Hezkuntza Ikerketari buruzko Proiektua): 1

- Cristina Satrústegui Azpíroz, Zizurko BHI. “Laguntza bateratuak”.

B) 1997/98: 10 (ikus oharra)

A1 modalitatea (lizentziaturak): 6

- M^a Angeles Rupérez Díez, Berriozarko HLHIP. Hezkuntzaren Zientziak.
- Antonio Alfaro González, Lizarrako HLHIP. Euskal Filologia.
- Iñaki Sánchez Lafuente, Lekarozko BHI. Artederrak.
- Luis Fernando Aznar Pérez, Iruñeko “Pza de la Cruz” BHI. Ekonomikak.
- Catalina Lecumberri Gavari, Lizarrako BHI. Kimikak.
- José Javier Alfaro Calvo, Tuterako “ETI” BHI. Filologia.

A2 modalitatea (doktoretza tesia): 2

- Andrés Jiménez Abad, Tuterako “Benjamín de Tudela” BHI. “Augusto Compteren filantropia eta hezkuntza pragmatismoa”.
- José Miguel Gastón Aguas, San Adriángo “Ega” BHI. Kriminaltasuna eta delinkuentzia hemerezigarren mendeko Nafarroan, 1833-1899”.

A3 modalitatea (espezializazio ikasketak): 1

- M^a Teresa López Munilla, Marcillako BHI. Atzerriko Hizkuntzetako ikasketak. MATELEF diploma.

B modalitatea (Hezkuntza Ikerketari buruzko Proiektua): 1

– José Jiménez Tutor, Iruñeko lanbide tailerretako orientatzailea. “Gizarte Bermeko hezkuntza- eta gizarte- proiektu bat burutzeko oinarriak”.

C) Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izangaiak baloratu eta hautatzeko erabili duen prozedura ikasketetarako lizentzien deialdian ezarritakoa da, alegia, uztailaren 2ko 287/1996 Foru Aginduaren bidez aldatu zen apirilaren 23ko 152/1996 Foru Aginduaren bidez 1996/1997 ikasturterako onetsi zena (maiatzaren 27ko eta uztailaren 15eko N.A.O.), eta Hezkuntza eta Kultura

Kontseilariak 1997/1998 ikasturterako eman zuen apirilaren 15eko 124/1997 Foru Aginduaren bidez (1997ko apirilaren 28ko 51. N.A.O.) onetsitakoa.

Eskatzaileek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzte, eta aski da hori liberazioa emateko deialdiak ezartzen zuen moduan.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 30ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzekeo proiektuaren administrazio-egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzekeo proiektuaren administrazio-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 13ko 66. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas jaunak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzekeo proiektuaren administrazio-egoerari buruz idatziz erantzun diezaioeten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak aipatu haritza elektrikoa eraikitzekeo ezinbesteko den ingurugiro-eraginari buruzko azterketarik?

Gaur egungo legeek ez dute ingurugiro-eraginari buruzko azterketarik aipatzen, bai, ordea, ingurugiro-ukipenei buruzko azterketa, hain zuzen ere uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretuaren bidez arautu zena.

Noiz aurkeztu du hori enpresa sustatzaileak?

Empresa Hidroeléctrica de Navarra-k (EHN) 1997ko apirilaren 21ean aurkeztu zuen Ingurugiro-ukipenei buruzko azterketa (IUA).

2. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak onespina eman al dio aurreko galderan aipatutako ingurugiro-eraginari buruzko azterketari?

Inguru naturalean egin beharreko obren plan eta proiektuen ingurugiro-ukipenei buruzko azterlanak arautzen dituen uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretuaren 5.3 artikuluan ezarritakoa betez, enpresa sustatzaileak obrei hasiera emateko baimena eskuratu du.

3. Nafarroako Gobernuaren ustez, Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzekeo proiektuaren administrazio-izapideak betetzen al du uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretuak, inguru naturalean egin beharreko obren plan eta proiektuen ingurugiro-eraginen gaineko azterlanak arautzen dituenak, ezarritakoa?

Alaizko parkearen haritza elektrikoaren trazaduraren izapideak aipatu Foru Dekretuan ezarritakoa bete du. Izapideak 5.2 artikulua bidez egin izana hobe bazen ere, 5.3 artikulua arabera bete dira.

4. Nafarroako Gobernuaren ustez, Alaizko mendikatean jarri nahi duten parke eolikoari dagokion haritza elektrikoa eraikitzeko proiektua sustatzen duen enpresak aurkeztu duen dokumentazioa bat al dator basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legeak ezarritakoarekin?

Aipatu den basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legeak ez du zehazki arautzen Ingurugiro-ukipeen azterlanetan zein dokumentazio erantsi behar den.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 30ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo